

2015eko INBERTSIO PLANEAN TXERTATU ZIREN HAINBAT INBERTSIOREN EGOERA DELA ETA, MOZIOA

Josu Mirena Ruiz Martinek, EH Bildu udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua ematen dion aukera baliatuz, honako MOZIO hau aurkezten du, 2015eko inbertsio planean txertatu ziren hainbat inbertsioren egoera dela-eta, Osoko Bilkuran azter dadin. Mozio hau Pertsonen Batzordean 2016ko urtarrilaren 14ko bilkuran egindako interpelazioaren ondorio da.

JUSTIFIKAZIOA

Uztailean, Udal Gobernu berriak, aurreko gobernuaren kudeaketari esker, inbertsio plan bat egiteko aukera izan zuen, eta erabaki hura udal talde honek begi onez ikusi zuen.

Hori dela-eta, hainbat emendakin egin eta gero, Udal Gobernuarekin akordio batera iritsi ginen. Horrela, PNV, PSE eta EH BILDUren bozkekin, onartua izan zen aipa Inbertsio Plana.

Baina gure harridurarako, onartu zenetik lau hilabete joan direnean, Gobernuak hainbat kreditu aldaketa egin ditu. Adibidez:

	onartuta	murrizketa
Donostia Lagunkoia	400.000	238.591,77
Iztuetako biaduktua birgaitzea	160.000	160.000
Urumea ibaiaren harresiaren konponketa	170.000	100.000
Kontxako baranda	1.165.000	300.000
Artikutzako presan jarduerak	169.628,50	56.565,51
Aiete-Morlans igogailuaren proiektua eta abar	55.000+35.000	68.909,70

Jaime Dominguez-Macayak, Ogasun Batzordean, partiden aldaketak banan-bana esplikatu zituen, eta une hartan jakin izan genuen, adibidez, 2016ko aurrekontuan Iztuetako biaduktua birgaitzeko partida nahikoa zela obra aurrera eramateko, hau da, inbertsio planean onartutakoa ez zitzaiola gehitzen aurrekontuari. Bestalde, akordioaren kudeaketari begira, ordezkariak Ogasun Batzordean informazioa ematea nahikoa zela zeritzon, kontuan hartu gabe interpelazioa egin behar izan genuela informazioa lortzeko.

Akordioek, gure ustez, lanketa bat behar dute eta Udalbatzan, inbertsio plana onartu eta gero, jarraipen bat eman behar zaio. Hori dela eta, honako MOZIO hau aurkezten dugu:

